

Balio Proposamenak

Kontsumitzaileak, gure makina egunerokoan erabiliko dutenak, gure produktua aukeratzearen arrazoia eskeintzen dugun erraztasuna eta erosotasuna da, egunero hartzen dugun kafea eskatzerakoan. Bestalde, kafetegiak gure produktua erostearen arrazoi nagusia, haien irabaziak askoz handiagoak izango zirela da. Produktu hau zehazki, enpresetako langileei zuzenduta dago. Gehienetan, lantoki handietan, oso ilera handiak egiten dira kafea lortzeko. Izan ere, langileen deskantsu ordu berbera izaten da eta gainera, kafe makina gutxi egoten dira. Hori gutxi balitz, enpresa askoren kafe makinak oso zaharrak dira eta batzuetan arazoak ematen dituzte, edo asko irauten dute kafea egiten, eta honek ilarak handitzea dakar. Behar edo arazo hau konpontzeko, gure makina beharrezkoa da. Kafe makina arrunt batean kalkulatu degu pertsona bakoitzak 40 segundu irauten duela kafea prestatzen edo erabakitzen. Gure makinarekin, denbora hau murrizten da, eta pertsona bakoitzak kafea lortzeko 20 segundu iraungo du. Horrek egiten du, ilararen erdia egongo litzatekeela eta hori suposa dezake zure kafea lortzeko eskubidea ala ez eta hori oso garrantzitsua da pertsona batzuentzako, ordu asko egoten direlako lanean. Ordaintzeko modua oso eraginkorra eta azkarra izango da. Izan ere, bezeroak bere kontua izango du konfiguraturata kafe makinak eta berak, bere hatz aztarna jarri eta kafea eskatu ondoren, kontua bezeroaren kontu korrontera pasako da.



Gure produktua oso bereizgarria da eta ez da beste kafe makina bezalakoak. Izan ere, gure kafe makinak azkeneko teknologiak izango ditu eta gainera, hatz aztarnarekin egingo degu, inoiz ez dugun ikusi makina. Jendeak askotan oso kafe bereziak eskatzen ditu tabernetan: kafe gutxi, aparrarekin, kafe askorekin... horrela pertsonalizatu dezakezue. Baita ere, hatz aztarnaz aparte, bezeroaren aurpegia detektatzeko gai izango da kafe makina, jarriko diogun kamara inteligente baten bitartez.

Bezeroak kafea eskatu nahi badu. kafe makinara hurbilduko da. Orduan, kafe makinak aurpegia ezagutuko dio bezeroari. Bezeroa, hatz aztarnarekin egiteko aukera izango du. Aurretik pertsonalizatutako kafea eskainiko dio kafe makinak eta orduan bezeroak aukera izanfo du baiezkoa edo ezekoa erabakitzeko. Ezezkoa bada, bestetan hartutako 3 proposatu. Kafea aukeratu ondoren, kafe makinak kontua pasako dio zure bankuko kontu korronteari. Horrela, bezeroak ez du diru efitiboa eraman behar eta gainera prozesua azkarrago egiten da.

DIRU SARRERAK ETA GASTUAK



Gastuak	Diru-sarrerak
Hasierako inbertsioaren gastuak: -Aplikazioa sortu -Patenteak -Pabeioia -Lokalean: ordenagailuak, obrak, makinak... -Enpresaren garraioa	Hasieran bazkideek jarritako kapitala
Soldatak(gutxienez 4 bazkide+langileak)	Produktuaren salmenta
Gizarte segurantzaren autonomoak	Publizitatea(denda online, anuntzioak)
Alokairua	Diru laguntzak
Produkzioa	
Osagaiak (esnea, kafea, azukrea...)	
Ura, argindarra	